

Arrasate

1997ko
Abenduak 5
387. zenb.

IRITZIA
AITOR
OROBENGOA

BERRIAK
SANTAMASAK

KULTURA
JON IRAZABAL

KIROLAK
IMANOL
ETXEBERRIAK ERE
BERE PEÑA DU
ARRASATEN

IKUSPEGIA
JAIONE
GUEZMES



Leintz Bailarak
500 urte Gipuzkoan

Oparia:
1998ko
egutegia

ETXEKO ARDURAK GIZON ETA EMAKUMEZKOEN ARTEAN TRUKATZEKO TAILERRA

Ikastaroak **urtariletik aurrera** emango dira.
(Izen ematea urtarrilaren 7a baino lehen
Udaleko Emakume Sailean)

1998rako
IKASTARO
BERRIAK!



EMAKUMEZKOENDAKO

- Iturgintza
- Elektrizitatea
- Automobilerako mekanika
- Oinarrizko arotz lanak

GIZONEZKOENDAKO

- Joskintza
- Plantxa
- Sukaldaritza
- Garbiketa



Europako Batzordea
Zuzendaritza Orokorra



ARRASATEKO UDALA



EMAKUNDE

EUDEL
BAGABILTZA
UPV-EHU

(Giza psikologia saila)

Harrobien haritik...

Harrobien gainean EKI Ekologi Taldeak puntuan behin burutzen dituen kanpainek bide bi zabaldu didate gogoetarako. Batetik, lurra eta ingurugiroa izango dituz aztergai; bestetik, lur eremu industrialia.

Nire lehen gogoeta naturari eragin diogun kalte ikaragarriari lotuta dago. Zuzen deritzot hain nabarmena den hondamendi horretan gure arreta jartzeari, begibistakoa da-eta Arrasate inguruko mendi-magalek jasan duten neurribako erabilpenak ekarri duen kalte itzela.

Bestalde, herri batek erakuts dezakeen irudia gero eta garrantzitsuagoa den garaiotan, kontuan hartzekoa da harrobiek Arrasateri ematen dioten irudi kaskarra. Aitortu behar dut ni neu ere, nire enpresaren katalogoa egiten nabilenen, FAGOR eta MCCko argazkiak eskatu eta San Josepeko harrobia ager ez dadin inon direnak eta bi egiten ibiltzen naizela sarritan.



Aitor Orobengoa

“Harrobien berreskurapenarekin zerbitzu nahiz industriarako lekua lor daiteke”

Bigarren gogoeta Arrasateko Udalean dagoen lur-industrial premiari lotuta dago. Gogoeta horren ardatza galdera honetan datza: ez al dago hain bolumen handi eta itxura zatarreko zulo horiek modu egokian berreskuratzerik?

Mendi-magalen aspaldiko itxura berreskuratzeko, orain dauden zuloak estali eta estalki horien gainean zuhaitzak eta abarrak landa litezke. Horretaz gain, estalpean geratutako hutsunea lur-industrialerako aprobetxa liteke. Badago hori egiterik?

Harrobien berreskurapena eta lur-industrialen premia: horra hor arazo bi uztari berera ekar daitezkeenak. Natura berreskuratuz, industri-lurra (bolumena, esan beharko nuke) lortu. Konbentzimendu osoz ari naiz. Seguru nago hau guztia modu duin eta eroso batean egin daitekeela.

Hala ere, gure harrobiak berreskuratzeko bi muga nagusi dauzkagu. Bata: ez dakigu harrobiak dauden lekuan zer egin; oraindik ez gara hori hausnartzen hasi.

Bestea: horrelako proiektu bati aurre egiteko beharko litzatekeen dirutza handia.

Ez diezaiogun sormenari mugarik jar. Harrobien berreskurapenarekin batera, zerbitzu nahiz industriarako lekua lor daiteke, komertzialgune integratuak indartsu dabiltzan garaiotan (Max Center, Garbera eta abar). Ildo beretik, eta ausartagoa izango naiz oraingoan, zergatik ez ditugu harrobiak aprobetxatzen bulegoak, kotxe nahiz kamioiendako aparkalekuak, Mondragon Unibertsitateak hain beharrezko dituen erresidentzia eta beste bertan kokatzeko?

Berreskurapenaz jardutean, oinarrizkoa deritzot mendi-magalen garai bateko itxura gordetzeari. Diruari dagokionean, berriz, kontuan hartu beharko genuke erabilpen industrial eta komertzialetik atera daitekeen etekina; baita Administrazio Publiko desberdinetatik eskura litezkeen laguntzak ere. Hau ez da teoria hutsa. Gogora dezagun, esate baterako, garai batean Gipuzkoako Foru Aldundiak harrobiak berreskuratzeko zeukan aurrekontua.

Egunen batean, gure ingurunearen egoera negargarriak eta industri-lurren premiak bultzatuta, gaur egun hain zoro edo apartekoa dirudien ideia honi heldu beharko diogu. Nik horixe uste dut behintzat.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak), Olatzora Kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65, Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Iñaxo Zubillaga, Marian Porcel, Patxi Montero. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Allube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñaxo Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Iturrar, Udaleko Gazteria Saila, ASA Taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopli, Jon Ozaola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa ardurak:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © **ARRASATE PRESS. Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/86. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontertutua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iruzkien erantzunikuzunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Ignacio Perez.

Arrasateko Udaleren laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileraren laguntza

387. zenbaki honetan

1997ko abenduaren 5ean

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..11/13	Kulturaren txokoa	27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak.....	Azoka plaza	30/31
Inkesta.....	7	Asteko gaia	Denborapasak	32
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	Ikusi eta entzun	33
Astearen errepasoa...10		Kolaborazioa.....	Fotozaharra	34

Ikuspegia
Aitor Orobengoa 3

Euren ikuspegitik
Jaione Guezmes 8

Aurrez aurre
Jose Mari Ormaetxea..... 24/25

Kulturaren txokoa
Jon Irazabal..... 27

Asteko gaia
Leintz Bailarak
500 urte Gipuzkoan..... 17/19

1556ko abenduaren 7an idatzitako dokumentua. Leintz Bailara Gebaratarrengandik aske geratzen zela dioen idatzia.

5

ostirala

■ ZINEA

Lolita. Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

Nazioarteko lehiaketaren kanporaketak, goizeko 10etatik 4rak arte, Amaia antzokian.

■ SENIDEEN MARTXA NAZIONALA ARRASATEN

Arratsaldeko 6.30etan iritsiko da Arrasatera. 7etan ekitaldia Herriko plazan, eta ondoren herrian zehar eskualdeko manifestazio ixila.

■ AKORDEOIA ATERPEN

Marcel magoaren ikuskizuna eta *Zirika* akordeoi taldearen emanaldia Aterpe tabernan, gaueko 11etan.

■ ARRASATEKO ARTEA

Arrasateko artea 3. munduari lagunduaz erakusketa inauguratuko du Goikobaluk 8etan San Frantziskon.

6

larunbata

■ ZINEA

El Jorobado de Notre Dame. Alai zineman, arratsaldeko 5etan. *La teniente O'Neill*. 7.30etan eta 10etan.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

Goizeko 9etatik 12ak arte, Gipuzkoako akordeoi jaialdia San Frantzisko Xabier ikastolan. 12.30etan, akordeoilarietako harrera ofiziala Udaletxeko pleno aretoan. Arratsaldeko 5.30etan, X. Gipuzkoako Akordeoi jaialdiari amaiera emateko gala berezia Amaia antzokian.

■ BEDOÑAKO JAIK

Goizeko 8etan jaiaren hasiera. Arratsaldeko 3etan mendi bizikleta irteera. 4.30etan buruhandiak eta 5.30etan haitzur jaurtiketa.

■ SAN NIKOLAS EGUNA

Bolo-boloa Herriko plazan. 12etan, 10 urtetik behe-

rakoentzat. 12.30etan, 10 urtetik gorakoentzat.

■ ORKATZ TALDEA

Orkatz taldearen ikasturtearen hasiera. 9 urtetik 15 urtera arteko neska mutilak eguerdiko 12etan Orkatz taldeak Altamiran duen lokalean joan daitezke.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Deskontrol, *Iskanbila* eta *The Komandos* taldeen kontzertua Gaztetxean, gaueko 9etan. *The Komandos* Gargartzako taldearen debuta izango da.

■ MUSAKOLAKO KIROLDEGIAREN OHARRA

Abenduaren 6tik 8ra goizez bakarrik egongo da zabalik Musakolako kiroldegia.

7

igandea

■ ZINEA

El jorobado de Notre Dame. Alai zineman arratsaldeko 5etan. *La teniente O'Neill*. Arratsaldeko 7.30etan eta 10etan.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

Nazioarteko akordeoi lehiaketaren azken fasea goizeko, 10etatik 4rak arte, Amaia antzokian.

■ BEDOÑAKO JAIK

Eguerdiko 12.30etan meza. Ordu batean doke txapelketa. Arratsaldeko 5.30etan gartzain jana. 6etan briska eta muto txapelketak. Gaueko 9etan auzo afaria Errastikuan.

Merkataritzako ihardunaldia

MERKATARITZA ETA KONTSUMITZAILEAK

Bezeroari eman beharreko informazioa, erosketa baleak, itzultzeak, erreklamazio orriak...

EGUNA: 1997ko abenduak 12, ostirala.

ORDUA: 15:00 etan.

LEKUA: Lanbide Eskolako aretoa (Nafarroa etorbidea, 17)

INFORMAZIOA: GATC • Tel.: 79 30 90


PREZIOA: 500 pta. (Ibai-Arteko bazkideak dohainik)

IZENEMATEA BEHARREZKOA DA: Uriarte Sport • Tel.: 79 27 78

ANTOLATZAILEAK



BABESLEA



Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila

Monte taberna

Maalako arrabala, 11

Tel.: 79 20 56

MARIANO ANDRADE SIGANO

TAXIA

24 orduko zerbitzua
Hotelak / Aireportua /
Ospitaleak...

Tel.: 79 96 87 • Tfno mobilak: (907) 75 23 85
Anboto, 2-4 ez. ARRASATE

8

astelehena

■ **ZINEA**

La teniente O'Neill. Alai zineman. 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ **AKORDEOI LEHIAKETAK**

11.30etan, akordeoi lehiaketan amaiera eta azken gala Amaia antzokian.

■ **BEDOÑAKO JAIK**

Eguerdiko 12.30etan meza. Ordu batean dantzariak. 1.30etan luntxa eta doke txapelketa.

9

asteartea

■ **ZINEA**

La Teniente O'Neill. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ **HITZALDIA**

Gaia: *Oinetako gaitzak*. Hizlaria: Alex Azkarate, podologo. Uribarriko jubilatuen egoitzan, arratsaldeko 5etan.

■ **GURASOENDAKO JARDUNALDIAK**

Hitzaldia. Gaia: *Gurasoen egitekoa eskola porrotaren aurrean* Hizlaria: Felix Etxebarria, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. Arratsaldeko 7etan Monterronen.

■ **AUTOESTIMARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: *emakumea eta bere autoestima bizitzan zehar*. Hizlaria: Amaia Vazquez. Arratsaldeko 3.30etan. Sarre: doan. Antolatzailea: EKIN.

■ **HOMOSEXUALITATEARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: *homosexualitate eta lesbianismoari buruzko hausnarketa*. Hizlaria: Amaia Vazquez. Aretxabaletako Loramendiren lokalean 6.30etan.

11

osteguna

■ **HITZALDIA MONTERRONEN**

Gaia: *Eguberriak eta jostailuak*. Hizlariak: Iratxe Vazquez eta Goizane Jauroso. Arratsaldeko 6etan, Monterronen. Txatxilipurdi Elkar-teak antolatuta.

■ **BITERI IKASTETXE NAGUSIAREN EKINTZA AKADEMIKOA**

Biteri ikastetxe nagusiaren ekintza akademikoa, arratsaldeko 7etan, Amaia antzokian.

■ **IPARRALDEARI BURUZKO HITZALDIA**


Gaia: *Iparraldeari buruzko informazio orokorra*. Hizlariak: Gazteria eta Euskal Herria Irratiko kideak. Arratsaldeko 7.30etan, AEDko egoitzan. AEDko *Hegoaxe* taldeak antolatuta.

10

asteazkena

■ **KALAMUDIAREN AURKEZPENA**

Cannabis-aren normalizazioaren aldeko taldearen aurkezpena. Hizlariak: Martin Barriuso, Kalamudia taldeko partaidea eta Deunoro Otero, Askagintzako partaidea. Arratsaldeko 7etan Monterronen.



Adi! Datorren astean erakusketa berria estreinatuko dugu!

Alfonbra eta ohialez gain, **haur eta gaztetxoen altzari sail berria** topatuko duzu bertan!

Kruz gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 76 07 37

ATBko TERTULIXAN PROGRAMAN...

Joan den asteazkenean, ATBko *Tertulixan* programa ikusten ari nintzela, presoak manipulatuta daudela, "moneda de cambio" direla eta horrelakoak entzun behar izan nituen bigonbidaturen ahotik. Gainera, horietako bat politikatik bizi dela esan behar dut. "Moneda de cambio" aipatzean, alde batean soilik PP alderdia kokatzen zuen eta beste aldean, berriz, Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak edo Gestorak. Hori entzuteak kristoren haserrea eragin zidan, urte dexente daramat eta gestoretan militatzen.

Argi dagoena da, alde batek hori horrela izatea gura duela. Damutu edo hil: horixe da presoek egiten dieten txantaia. Horretarako, duela 11 urte, PSOEk, paktoko gainontzeko alderdiekin batera (PP, PNV, EA, UPN...) dispersioa diseinatu zuen, jakinean neurri politiko hori ilegala dela. Euren helburua etekin politikoa ateratzea bazen ere, konturatu direnean dispersioak ez diela etekinik ematen -horra hor gizartearen presioa-, alderdi gehienek euren diskurtsoa aldatzeari ekin diote. Eta azkenean, PP geratu da bakarrik dispersioaren "bandera" defendatzen. Kontuan

izan behar da, baina, garai batean aipatutako alderdi horiek guztiak dispersioaren alde egin zutela; hemerrotekara jotzea besterik ez dago hori horrela dela ikusteko.

Eta aipatutako txanponaren beste aldeari begiratu, "senide" izatea ez da borondatez aukeratzeko, zoritxarrez, inposatutako titulua da, eta normalean senidea bera izatean da presoaren egoeraren arduradunak nortzuk diren argi eta garbi esaten duena. Ez dago, beraz, seme/alaba, aita/ama, lehengusu eta abarrak manipulatuta beharrik.

Gestoren kasuan, berriz, gure lan ildoak azalduko ditut:

- Gestora Euskal Preso Politikoei babes politiko, "ekonomiko" eta judiziala ematen dizkien herri erakundea da.

- Gestorak Euskal Preso Politikoei Bozeramaleak gara (hauen aldarrikapen, kexu, egoera eta abarren gaineko informazioa zabaltzeko).

Eta bukatzeko esango dugu hemen benetako protagonistak Euskal Preso Politikoa direla. Ezker Abertzaleko militanteak dira, Ezker Abertzalearen proiektu politikoarekin bat datoza, eta hori izugarriko duintasunarekin defendatzen dute. Horretxegatik daude Estatu Espainiar eta frantziararen saka-

banatuta, isolatuta; horretxegatik jipoitzen dituzte eta horretxegatik ez da euren kasuan legea betetzen.

Besarkada handiena eurentzat.

Ion eta Pedrotxo etxera!

Euskal Presoak Euskal Herrira orain!

Aitor Etxabe

ITURBIDEKO ARAZOAZ

PSOE, IU eta HBren botokin, iaz Udalak argi zuen langile horien kontratazio egonkorra lortu behar zela, eta hiru urte igaro ondoren, zerbitzu hau Udalak zuzenean eskaini behar zuela. Blanca Roncal-ek (PSOE) zioen moduan, Iturbide Egoitzako langileak udal lan taldekoek izan beharko lukete. Adierazpen hauek egin zituenetik urtebete igaro da, eta orain kontrako jarrera hartu du, hau da, azpikontratazioaren aldekoa. Zergatik iritzi aldaketa hori?

Ez dugu ulertzen zergatik jo nahi duten berriro ere azpikontrataziora. Pertsonal gastuak murriztea bada arrazoa, jakin dezatela eurek proposatzen duten merketze hori bertan lan egingo duten klinika laguntzaileen lan baldintzak okertuz lortuko dutela. Gainera, kostuei dagokienez, zerbitzua azpikontratatzea edo zuzenean eskaintzea parra izango da Udala-

rentzat.

Urtebete igaro denean argi dago zerbitzuaren kalitatea igo egin dela eta egoitzako lagunak hobeto zainduta daudela.

Azpikontrataziora jotzeak, egoitzan daudenengan eragin zuzena izango du. Langileen lan baldintzak eskasagoak izanik, zerbitzua ez da kalitate berdinarekin eskainiko.

Sindikatuok eta langileok, politikoekin negoziatzen ahalgindu gara baina ez digute jaramonik egin. Pleguari ere emendakinak aurkeztu dizkiogu, baina Iturbide egoitzako Zuzendaritza Batzordeak atzera bota ditu.

Gobernu Batzordea salatzeko dugu izaera negoziatzaile eskasa duelako eta pribatizazioaren aurka gaudelako. Kontuan izan, Iturbide egoitzako langileek jasango duten prekaritateak hirukoak ezarritakoa dela.

ELA, LAB, CCOO eta ESK

Zuzenketa

Joan den asteko alean, Alkartetxean jan zituzten buzkantzak Garagartzan egindakoak zirela aipatu genuen, eta informazio hori oker zegoen. Buzkantzak Alkartetxean bertan egin zituzten.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tel.: 79 87 74
ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa

79 42 22

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 5**
- Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
 - Gauez: Estella. Bergara.
- Larunbata 6**
- Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.
 - Gauez: Mozos. Bergara.
- Igandea 7**
- Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola.
 - Gauez: Mozos. Bergara.
- Astelehena 8**
- Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin.
 - Gauez: Camacho. Bergara.
- Astearte 9**
- Gaueko 10ak arte: Ameza. Santamaina.
 - Gauez: Puy. Bergara.
- Asteazkena 10**
- Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
 - Gauez: Guallar. Bergara.
- Osteguna 11**
- Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.
 - Gauez: Estella. Bergara.

HIESAren gainean nahiko informazio jasotzen dugu?



Amaia Oregi
(27 urte)
Langilea

Nire ustez nahikoa dago, baina gehiago balego, hobeto. Ni neu normalean ez naiz saiitzen informazioa bilatzen.



Iban Iglesias
(15 urte)
Ikaslea

Ez, gutxi dago. Ni neu ere informatuta egoteko gutxi saiitzen naiz.



Eli Bellido
(23 urte)
Langilea

Ez. Informazio gehiago behar dugu. Gaixotasun larria dela eta nola kutsatzen den badakigu, baina besterik ez. Neuk ere ez dakit gehiago.



Jorge Gómez
(29 urte)
Langabezian

Ez. HIESa duten lagunak dauzkat, beste batzuk joan dira... neurriak hartzen ditugu, baina informazio gehiago egon beharko litzateke, umeendako batez ere.



Judith Ruiz de Munain
(24 urte)
Langilea

Orain urte batzuk sarriago azaltzen zen komunikabideetan. Orain informazio gutxitxoago dago. Ni saiitzen naiz informatuta egoten.



Maribi Urzelai
(32 urte)
Etxeko andrea

Batzuek nahikoa informazio daukate, baina beste batzuek ez. Ni saiitzen naiz informatuta egoten.



Andoni Zabaleta
(33 urte)
Langilea

Bai, dexente dago, komunikabide guztietan agertzen da eta. Ez diot arreta berezirik jartzen, komunikabideetan ematen dutena jasotzen dut.



Jose Luis Plaza
(52 urte)
Langilea

Baietz uste dut, oinarrizkoena badakigula. Ni neu ez naiz bereziki saiitzen informatuta egoten.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A
ZU LAGUNTZEKO GAUDE!
• Ohe artikulatuak. • Bañerak, guak, takatakak.
• Komuneko aulkiak, gurpil aulkiak arinak eta elektrikoak.
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

USTEAK USTE

Hau da panorama!

Madriletik eskuak igurtziaz begiratzeko gaituzte; guk, berriz, arduraz begiratzeko diegu eurei. Hau da hau Euskal Herrian utzi duten panorama, eta eurei bost axola! Badakite jaleoa hemen egosiko dela, eta ondorioak berriro ere euskal herritarrok jasan beharko ditugula.

Une txarrean dator HBkoei ezarritako zigorra, batez ere gatazka konpontzeko asmoz azkenaldian garatu diren zenbait ekimen atzera ere itzalean gera daitezke-elako. Esperantza izpi bat ikusten zenean, zapla!

Baina boliek aurrera darrai, eta oraingo honetan gustatuko litzaidake martxoan espetxeratu zituztenez erabili zuten estrategia bera HBk ez errepikatzea. Euskal gizartea zigorraren kontra dago, eta ziu nago gehienok begi onez ikusiko dugun bidea markatuz gero, gizartea mugitu egingo dela zentzugabeko egoera honi amaiera emateko. Indarrak batu eta oraingoan gizarteak atera behar ditu espetxetik. Ondo baino hobeto dakigu beste bideek ez garamatzatela inora.

Maria Agirre



Duintasunaren aldeko martxa

Jaione Guezmes

Senideok martxa bat antolatu dugu preso ditugun senideekin legeak agintzen duena bete dadin. Martxa hau azaroaren 30ean hasi eta abenduaren 20an bukatuko da. Honekin salatu nahi dugu PPren gobernuak euskal preso politikoen taldeari ezartzen dion kartzela politika eta aldi berean exigitzen dugu bete daitezela bere egunean Eusko Jaurlaritzak hartu zituen akordioak. Akordioak hauek dira:

- Euskal presoak E.Hko kartzeletara ekar ditzatela.
- Gaiso sendaezina edo tratamendu berezia behar duten guztiei ezar diezaizatela gartzela araudiaren 30. artikulua.
- Zigorraren 3/4 bete duten eta oraindik gartzelan dauden preso politikoak aske gera daitezela Gartzela Araudiak dioen bezala.

Senideek dei bat luzatzen diegu gizarteko sektore

guztiei martxan lagundu eta aldi berean presoak sufritzen ari direna sala dezaten.

Gogorarazi nahi dugu gaur egungo gartzela politikak 14 hildako eragin dituela, sei senide hil direla bisiten joan-etorrian eta beste hainbat zaurituak izan direla. Gaur egun, hil edo elbarri gera ez daitezuten tratamendu berezia behar duten 7 preso daude eta beste 109 oraindik barruan daude, nahiz eta zigorraren 3/4a beteta duten.

Senideek uste dugu PPren gobernu eta bere laguntzailer zuzenak direla eta izango

direla gure senideekin gertatzen denaren erantzule, eta euren eskuetan dago sufritzen eta ilegaltasun horri bukaera ematea.

Salatu nahi dugu:
- Kanpoan egon beharko luketen eta ezarri nahi zaien txantaia onartzen ez duten 109 presoegoera.

- Gartzeletako sarraski-egoera mantentzen laguntzen duten alderdien konplizitatea eta isiltasuna.

- Gure inguruari dago-kionez, Pedro Guridiren kasua, zigorra beteta edukitzeaz gain, duen hernia diskala sendatzeko ebakuntza premiazkoa du baina trasladoa ukatzen diote.

- Jon Agirre, Etxaniz Zorri-lla, Felix Bengoa eta Arluziaga Iribar (beste batzuren artean) oraindik barruan daude nahiz eta aspaldi kanpoan egon beharko luketen.

Senideek eskatzen dugu: giza eskubideak errespetatu eta legeak dioena bete dadila gure presoekin, sakabanaketaren mendekua bukatu, gaisoak behar duten bezala tratatuak izan eta zigorra bete dutenak aske gera daitezela.

Hau guztiagatik gizarteko sektore guztiei dei egiten dizuegu martxan lagun deza-zuen. Berezikatu abenduaren 5ean Arrasatera iristen denean, denok gure preso-erakutsi eta euren eskubideak errespetatuak izan daitezela eska dezagun.

Euskal Presoak Euskal Herria!

Jaione Guezmes,
Deba Garaiko Senideen kidea

“Senideok martxa bat antolatu dugu, presoekin legeak agintzen duena bete dadin”

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 79 91 84
ARETXABAETA

Ippek Denda
Turriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Lore
Lurrindegia
Olarke kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz, 35..... ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTROA Iturriotz, 7 Bis..... ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7, 1^a..... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5..... ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1-B..... ☎77 12 63

DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎79 72 16
- CRISTINA GARCIAIDIA. (Udalaitz Mediku-Zentroa) Ferrerías, 56 behea..... ☎79 44 22

ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1..... ☎77 14 72

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1..... ☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1..... ☎79 72 16

FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTROA Olarte 43 Bis..... ☎77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTROA Erdiko kale, 37..... ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA Ignacio Zuloaga,10..... ☎79 48 77

MASAJISTAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai)..... ☎77 01 33

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea..... ☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6..... ☎79 25 98
- LARRANAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1..... ☎79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzeziño, 2..... ☎79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4..... (Mobila) ☎989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎79 20 18

PODOLOGOAK

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea..... ☎79 53 63

PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10..... ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA Ignacio Zuloaga,10..... ☎79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTROA Erdiko Kale, 37..... ☎79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56..... ☎79 44 22

FAGOR 

SONY

BOSCH

AEG

PHILIPS

Hemen

Corberó

SANYO

OSO

Rowenta

 aspes

FUJITSU

BRAUN

Electrolux

 Balay

DeLonghi

ZANUSSI

Superser

erraz



Jose Aranzabal

astea bi hitzetan

■ Auto batek susmoa eragin zuen Munarren

Joan den ostegunean, hilak 27, auto susmagarri baten berri eman zuen telefono deia jaso zuten SOS Deiak-en. Autoak, Volkswagen Polo batek, bi aste zeramatzen Munarreko Kutxako sukurtsalaren ondoan aparkatuta. Ertzaintzak Munarreko kaleak inguratu eta artezilariek autoa arakatu zuten, baina barruan ez zuten ezer aurkitu. Ondoren, grua batek eraman zuen kotxea.

■ Leintzgain inauguratu zuen Almen ikastolak

Zapatuan, Almenek Aretxabaletako Galartza auzoan antolatu duen natur etxea inauguratu zen. Naturarekin harremanak sendotu eta artisautza, nekazaritza, eta hizkuntza landuko dituzte ikasleek Leintzgainen.

■ "Arrasateko artea 3. munduari lagunduaz"

Harreman taldearen eskutik, herriko artistek doan emandako koadroak eta keramikak salgai jarriko dira gaurtik urtarrilaren 6ra arte. Salmentatik ateratzen den dirua Kolonbiara bidaliko dute harremanekoei, bertako herri batean San Klemente izeneko proiektua ari dira eta aurrera ateratzen. Proiektuaren helburua nekazal-industria eta elikagaien produkzioa garatzea da eta aurrekontu orokorra 22 milioiokoa da. Harremanekoei Aretxabaletako Hiruatz taldearekin batera heldu diote proiektu berriari.

Astelehenean prentsaurrea eman zuten harremanekoei erakusketaren berri emateko, eta bide batez eskertu egin zuten herriko artisten erantzuna.

■ Asanblada informatiboa eta manifestazioa

Astearte iluntzean, asanblada informatiboa eta manifestazioa egin ziren. Asanbladan Xabier Zubizarretak hitz egin zuen, eta HBkoei ezarritako zigorraz baino gehiago, joan den astean Donostian egindako gogoeta baraualdia izan zuen hizpide. Zubizarretak, sortu berri den plataformaren helburuak zeintzuk diren azaltzeaz gainera, presoen Euskal Herriratzea lortzeko gizarte zibila mugiarazi beharra dagoela esan zuen. Euskal gizartearen elkar ulertzea bilatzea ere ezinbestekoa dela azpimarratu zuen.

Ondoren manifestazioa abiatu zen eta bertan Mahai Nazionalaren eta Alternatibaren aldeko esaldiak aldarrikatu ziren.




Ez da bape erreza 150 pertsona lagun baten inguruan elkarkeñie. Ez da erreza Errealien bertan be, baiñe Aitor Lopez Rekarte Bonba-k hori lortu dau. Zela lortu dauen? Ba, lan asko eindde, eta bera dan modokue izenda, arrasatearroi ilusiñue sortute.

Zer dala-ta gatozen gai honetaz? Ba, arrazoi simple bategatik; uste douleko Gipuzkuen badauzela jokalaria batzuk, Aitor bera edo Aranzabal, Idiakez, De Pedro, Sarriegi, Imaz... egiten dauen lana ez dauken kalidadie aittortuten ez jakuenak, edo ez behintzat kanpokuen maila berien.

Jentie Gika-Gika, Darko-Darko uluke ibiltten da. Guk Bonba-Bonba, Agus-Agus, eta abar esango dou, uste douleko, kanpotarrak errespetauaz, guk etxekoen albuen egon biher doule, azken orduen eurek izeten dielako babak lapikotik ataraten dittuenak. Ondo dau "Aupa Gika" esatie, baiñe batez be "Aupa Aitor, Iñigo, Javi, Agus, Alberto, Kote, Iker...". Etxien daukoune ezautute, ez dou entendiduten zer dala-ta baloretan dan gehixau kanpokue. (...)

BITTOR ARRIARAN

(Bonba Taldieren izenean) Euskaldunon Egunkaria 1997ko azaroaren 27a



EUROIPEAN HIES-AREN EGUNA OSPATU ZEN

Astelehen ilunkaran herriko plazan hainbat lagun bildu zen Hiesaren nazioarteko eguna zela eta. Hies Ekimeneko kideek esan zuten, txarto irizten diote Bilbon hiesa duten haurrentako eskola berezi bat antolatzeko asmoari. Hies Ekimenekoei integrazioa beharrezkoa dela aldarrikatu zuten.

JUBAR
ATEAK. S.L.


- BURDINEZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE



Altzariak
Diseinua
Apainketa

ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94



Usaetxe plazan kokatuko da Uribarriko gizarte-etxea.

Uribarri auzoan gizarte-etxea egingo du Udalak

Uribarriko edadetuek gazte-agoekin konpartituko dute lokala, izan ere, Udalak auzo horretako Usaetxe plazan egingo duen gizarte-etxea adin desberdineko jendeari zuzenduta egongo da.

Udalak gizarte-etxekeo proiektua onartu berri du, eta 33.700.000 pezetako aurrekontuarekin hasiera batean toki hauek egokituko dira gizarte-etxean: taberna bat, hirugarren adinekoendako gela, bulegoa eta ekintzarako gela adin desberdineko jendeak erabili dezan. 33 milioiak obrak egiteko bakarrik direnez, datorren urteko aurrekontuetan 7 milioi zuzenduko dira gizarte-etxea hornitzeko.

Blanca Roncal ongizate batzordeburuak esan duenez, lehenengo fasean goian aipatutako gauzak egingo dira, baina bigarren fase batean gimnasioa, ludoteka eta etxe-ko lanak egiteko gela egin nahi dira.

Roncalen arabera, adin desberdineko auzotar guttien bilgune izango da gizarte-etxea. Era berean, Uribarrin gero eta jende gehiago bizi denez, auzoak horrelako toki bat beharrezkoa


duela iritzi dio. Orain Uribarriren txanda izan den moduan, ondoren beste auzo batzuetan ere gizarte-etxea egiteko asmoa dutela aurreratu du ongizate batzordeburuak.

Joakin Iria

“Pozik gaude proiektuarekin”

Uribarriko jubilatuen egoitzako lehendakariak aitortu duenez, nahiko pozik daude proiektuarekin. Hala ere, gizarte-etxea izena ez zaiela gustatzen esan du. “Betidanik ‘hogar-a’ dietu diogu, eta aurrerantzean ere horrela izango da.

Ekintza desberdinetakorako gela konportitzean ez dela arazorik izango uste du, hala ere, gela hori gehienbat hirugarren adi-



nekoek erabiliko ei dute. “Ez dugu uste jende asko etorriko denik” iritzi dio Iriak.



J. M. Bermejo desagertuta dago

Azaroaren 17az geroztik desagertuta dago Jesus Maria Bermejo Navarro, 26 urteko arrasatearra. Jose Mariak goizeko 7.30etan irten zuen etxetik lanera joateko, eta arratsaldeko 2:30etan Meca tailerrera joan zen erabiltzen zuen autoa konpontzen uzteko. Mecan Twingo gorri bat eman zioten eta une horretatik aurrera zer gertatu zen inork ere ez daki.

Senitartekoek desagertuaren argazkia zabaldu dute, norbaitek Jose Mari ikusi edo desagertetaren inguruko pistaren bat balu familiari jakinarazteko. Berriren bat izanez gero deitu 79 69 19 telefono zenbakira.

Bake epaitegia konponduta

Asteazkenean zabaldu zuten Ignacio Zuloaga kaleko bake epaitegia.

Apirileko erasoaren ondorioz, bake epaitegia hondatuta geratu zen, eta ordutik konponketak egiten ibili dira. Oraindik ez dakigu ziur epaitegia konpontzea zenbat kostatu den, baina lau milioi eta erdi gastatu direla uste da.

ITSASO GARAI, Kultura batzordeko burua

“Kultur taldeak ez daude politizatuta baina bai jaietako arlo batzuk”

- Zer irizten dio Udalak Arrasateko zenbait kultur elkarteak egindako eskakizunei?

- Gobernu batzordeak azaroaren 11n hartu zuen erabakia berritsi dugu: Udalak kartela, esku programak eta egitaraua egingo ditu. Dena den, argi utzi nahi dut ez ditugula Santamas Komisiñue eta kultur taldeak baztertu nahi. Kultur taldeek kaleratutako idatzian, Santamas Komisiñue alde batera utzi dugula esaten da, eta hori ez da horrela. Niregana ez da kultur talde bakar bat ere etorri, eta ni berba egiteko prest nago. Aldebaten iritzia jaso da bakarrik.

- Udalak Komisiñue poli-

tizatuta dagoela esaterakotan, jaietan parte hartzen duten talde guztiak ere politizatuta daudela esan nahi du?

- Taldeak ez daude politizatuta baina bai jaietako arlo batzuk. Guk kartela aldatzea bakarrik proposatu genuen. Komisiñuek ez zuen proposamena onartu, euredako antolaketa eta kartela egitearena batera doazelako.

- Kartela eginda dago?

- Bai. Ez dugu astirik izan lehiaketa deitzeko, beraz, anonimo batek egin du aurtengo jaietako kartela. Dena den, datorren urtean lehiaketa egingo da. Santamas Komisiñuek, kartela beti pertsona



berak egin duela eta aurretzean ere horrela izan beharko litzatekeela uste du. Nire ustez hori ez da kartela ez aldatzeko arrazoi nahikoa.

- Santamas Komisiñuarekin gauzak konpontzeko aukerarik badago?

- Nik oraindik ez dut jaso euren erabakia azaltzen duen idatzirik. Baina ahoz, ez dutela antolaketa parte hartuko esan zuten.

- Kultur taldeekin jarri zarete harremanetan?

- Talde gehienekin jarri gara harremanetan. Uste dut kultur taldeak jaietan parte hartuko dutela urtero bezala.

- Egitaraua eginga dago?

- Bai, detaile batzuk lotzea besterik ez zaigu falta. Aurtengo lan handiagoa izan dugu, lau urtean behin egiten den ganadu feria egin behar da eta.

KULTUR ELKARTEAK

“Santamas Komisiñuarekin duen jarrera itxia aldatu behar du Udalak”

Santamas jaiak Santamas komisiñuarekin batera antolatzeke eskatu diote udalari herriko zenbait kultur elkarteek. AED, Trikitixa Eskola, Arrasateko Erraldoi eta Kili-kien Konpartsa, SUDC, ASA argazkilaria taldea, Txalaparta, Arrostitz Dantza taldea, Orkatz Skaut taldea, Arrasateko Tailaginen Elkarte, Arrasateko Gaiteroak eta Lore Gazteak dira eskaera hori sinatu duten taldeak.

Taldeek kaleratutako idatzian aipatzen denez, Santamas Komisiñuek lan handia egin du jaiak aurrera ateratzeko, eta lan horri esker, jaiak sakonago sustraitu dira. Udalak azken hilabeteetan hartutako hartutako “jarrera oso itxia” dela uste dute taldeek, eta jaiak antolatzeko komisiñuaren lana ezinbestekoa dela irizten diote.

Talde hauen ustez, ez dago arrazoi objektiborik festaren antolaketa aldatzeko.

Komisiñua politizatuta dagoela esatearen kontra ere azaldu dira kultur elkarteak, euren arabera horrek jaietan parte hartzen duten taldeak ere politizatuta daudela adierazten du eta.

Iritzia azaldu eta gero, hainbat eskaera egin diote Udalari:

Lehenik, urte hauetan Komisiñuek egin duen lanaren balorazioa egitea. Bigarrenik Udalari eskatzen diote Santa-

mas komisiñuarekin duen “jarrera itxia” aldatu, eta harremanetan jartzeko Gabonetako jaiak elkarrekin antolatzeko. Bukatzeko, herritik eta herrian sortzen diren ekimenak bultzatzeko eskatzen diote udalari, bestela jaien kontrako giroa sortu daitekela uste dute eta.

Santamas Komisiñuek prentsaurrea emango du bere iritzia plazaratzeko. Prentsaurrekoa datorren ostiralerako deitu dute.




BIZIKLETAK AFRIKARA

Bizikleta horiek guztiak Mozambikera eramateko dira. Eskoriatzan eta Aretxabaletan batu eta Arrasateko Udalaren biltegi batean gorde dituzte orain arte. Astean Albaceterako bidea hartu dute bizikletek baina ez pentsa Land-Rover honetan eraman zituztenik. Albaceterako preso batzuek konponduko dituzte bizikletok, gero Mozambikera bidaltzeko.



MOSAIKO POLITA

egin zuten Corazon de Encinakoek joan den domekan Lau Biden. Goizeko 11ak inguruan hogeituroko lehenengo txanponak ezarri, eta iluntzerako egundoko espirala osatu zuten. Ekintzarekin lortutako milioia Badajozeko uholdeen eraginez kaltetuak izan zirenei bidaliko zaie.



ZORIONAK, BIKOTE!

Francisco Barquero eta Isabel Garcia orain dela 25 urte ezkondu ziren Santaimainako elizan. Urteurrena bertako elkarte batean ospatu zuten familiarrekin, baina elkarrekin bizi izandako urte guztiak gogoratzeko Teneriferako hegazkina hartu zuten. Zorioneko irlan ederto ibili ziren.

TELLERIA

 AUTO-ESKOLA

Juan Carlos Guerra
 enparantza
 Tfnoa: 79 18 39
 ARRASATE

Mitarte, 18
 Tfnoa: 79 53 51
 ARETXABALETA

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaia judizialak.
- Psikomotritizitatea eta logopedia.
- Tratu txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 ▪ Tel: 79 48 77 ▪ ARRASATE



BERRIRO ERE GUGGENHEIM-ERA

Guggenheima bisitatu duen beste talde bat ekarri dugu orriotara aste honetan ere. Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako Helduen Heziketa Iraunkorreko ikasleak joan den astean egon ziren museoan. Kontatu

digutenez, izugarritzko jendetza zegoen museoan eta talde bat gidari barik gertatu zen. Dena den, bisita oso interesgarria iruditu zitzaizen, eta ostean museo-ko jantokian bazkaldu zuten.

DONIBANETIK PARISERA

Donibane okindegiak Parisera joateko bidaia bat zozketatu zuen domekan bere bezeroen artean. Txartel saritua Aritz Martinek atera zuen Donibaneko langileen aurrean. Kontxita Ugarte izan zen saritua eta bere senarrarekin egingo du bidaia Parisera. Ondo ibili Kontxita!



Resti Solores eta Luis Espinosa 1947ko abenduaren 5ean ezkondu ziren, orain 50 urte. Gaur urrezko eztaiak ospatuko dituzte euren hiru semeekin eta familiarrekin: goizean meza San Andreseko elizan eta gauean afaria Taberna Berrin. Hemendik gure zorionik beroena.

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78

**MECA
GRUA ZERBITZUA**

Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000

24 orduko zerbitzua 365 egunetan

1998an Seguruago Egoteko

MAPFRE BIZITZA

Ez itxaron azken egunera arte eta etorri gure bulegoetara. Errentabilitate handiko produktuak, desgrabazio fiskal interesgarriekin.

- FONDO ETA PENSIO PLANAK
- E.P.S.V
- Eta abar.

Hau guztia MAPFREko garantiarekin.


INFORMA ZAITEZ!

MAPFRE MUTUALITATEA

Zure autoarendako aseguru aukera zabalena aurkezten dizugu. Prezio-zerbitzu erlazio egokiari esker, MAPFRE MUTUALITATEA auto gehien aseguratzen duen konpainia da.

MAPFRE ASEGURU OROKORRAK

Hile osoan zehar, etxebizitza, komunitate, komertzio, istripu eta abarreko produktuetan prezio bereziak. EZ GALDU ZURE AUKERA!



MAPFRE

MUTUALITATEA

Gerora Begira

Garibai Etorbidea, 16
Tel.: 79 89 00 / 79 67 22

Arrasate Pasealekua, 37
Tel.: 79 71 31 / 77 03 04

ARRASATE

Leintz Bailarak 500 urte Gipuzkoan

Urte esanguratsua da aurten goa Leintz Bailarendako. Orain dela 500 urte leintzaren bailara Gipuzkoan sartu zen. Hala ere, bailarako bi herrik bakarrik, Aretxabaletak eta Eskoriatzak, ospatu dute urtemuga hori. Zergatik? Arrasate eta Leintz Gatzaga lehenago Gipuzkoaratu zirelako.

Hilabete batzuk atzera egin eta gogoratu duzue uztailean Gipuzkoako alkate eta Diputazioko arduradunak Getarian bildu zirela Gipuzkoaren 600. urteurrena ospatzeko. Orain dela bi aste, berriz, Aretxabaletako Otalora jauregian, Leintz Bailarak Gipuzkoan daramatzen 500 urteak ospatu ziren. Otaloran egindako ekitaldi berezian Eskoriatza, Aretxabaleta eta bi herri inguruan dauden 15 elizate izan ziren protagonista; izan ere, orain dela 500 urte horietek osatzen zuten Leintz Bailara. Puntu horretatik abiatuta, burura datorkigun lehenengo galdera hau da: Arrasate eta Leintz-Gatzaga ez ziren Leintz Bailarako partaide duela bost mende ala?

Galdera horri erantzuteko eta bailaren historiaz janzteko, zuzenena Iñaki Urreta historialari atxabaltarrarengana jotzeari iritzi diogu.

Iñakik kontatu digunez, Erdi Aroan Arrasatetik Gatzagaraino luzatzen zen eremuari deitzen zitzaion Leintz



Leintz Bailara Gipuzkoan sartu zeneko 500. urteurrena ospatzeko erakusketa zabaldu dute Eskoriatzan.

Bailara. Orduan, gaur egun auzo diren hainbat elizatek osatzen zuten leintzarren bai-

lara. 1.260an, berriz, Alfonso X.ak ezarritako lege berri baten bidez (Carta Puebla), Arrasa-

tek Mondragon izena hartu eta hiribildu bihurtu zen. Gauza bera egin zuen Leintz Gatzaga-

IGNACIO PEREZ.

gak urte batzuk geroago, eta horrela, bi herriok Leintz Bailararen partaide izateari utzi zioten. Era berean bi herri horietan harresia eraiki zuten lur zabala eta bildua bereizteko. Hiribilduen bitartez, erregeak jauntxoaren boterea ahuldu eta merkataritza bultzatu nahi zenez, lan desberdinetan zihardutenen bilgune bihurtu ziren hiribilduak.

Leintz Bailara osatzen zutean Aretxabaleta, Eskoriatza eta inguruko 15 elizateek, berriz, ez zuten hiribildu bihurtzeko legea lortu eta gainera, orduko erregeak, Enrike II.k, 1370ean Beltran Gebarakoa izeneko jauntxo arabar baten esku utzi zuen bailara. Menpekotasun hori zela-eta handik zazpi urtera hiribilduek Gipuzkoako hermandadea sortu zutenean, Beltran Gebarakoak debekatu egin zien leintzarrei hermandadean sartzea. Laburtuz, 1397an egoera hauxe zen: Arrasate eta Gatzaga hiribildu libreak eta Gipuzkoako hermandadeko partaide, eta gaur egungo Aretxabaleta eta Eskoriatza Gebarako jauntxoaren menpe.

GEBARATARRAK

Demasekoa izan behar zuen Gebaratarren botereak. Pentsa ezazue: Arabako Gebara herrian bizi zen familia noble bat Leintz Bailara osoaren jabe. Baina Gaztelako familia noble garrantzitsuenetarikoa zen Gebaratarren boterea ez zen bailarara mugatzen. Oñati ere euren esku zegoen, eta Oñatiko jauntxo tituloa zuten. Horretaz gain, Araia inguruko lurrak eta Errioxako eta Nafarroako lur batzuk ere jauntxo horien ardurapean zeuden.

Gebaratarrek ez zuten ospe onik, eta mondragoetarrek erre-gutu egin behar izan zioten erre-geari Gebarakoen menpe ez uzteko. Enrike II.ak mondragoetarren nahia bete zuen. Bestalde, Gipuzkoako hermandadeko partaide izan baino lehenago, Arabako hermandadearen barruan egon ziren Aretxabaleta eta Eskoriatza. Zelan ez, Gebaratarrek sartu zituzten Araban. Baina leintzarrek gipuzkoar izan nahi zuten, eta ez zuten amore eman hori lortu arte.

1397an Arrasate eta Gatzaga Gipuzkoako hermandadeko partaide ziren. Gaur egungo Aretxabaleta eta Eskoriatza, berriz, Gebarako jauntxoaren menpe zeuden.

deko partaide izan baino lehenago, Arabako hermandadearen barruan egon ziren Aretxabaleta eta Eskoriatza. Zelan ez, Gebaratarrek sartu zituzten Araban. Baina leintzarrek gipuzkoar izan nahi zuten, eta ez zuten amore eman hori lortu arte.

AZKENEAN GIPUZKOAR

Leintzarrek Gebaratarren uztarpetik irten nahi zuten, eta hori lortzeko, jakina, aukerarik onena Gipuzkoako hermandadean sartzea zen. Izan ere, jauntxoaren gehiegikeriei aurre egiteko batu ziren hiribilduak hermandadean. Era berean, hermandadearendako desegokia zen Leintz Bailararen kokapena. Kostaldetik Gaztelarako bidean oztopo handia aurkitzen zuten merkatariek: Leintz Bailara. Aretxabaleta eta Eskoriatzatik pasatzea oso arriskutsua zen, gaizkile eta bandolero asko egoten zelako.

Errege katolikoek ere



Orain dela 500 urte moduan, auzo alkateek eta alkateek zin egin zuten gipuzen jar



Iñaki Urretak bere ikerketaren berri eman zuen azaroaren 22ko ekitaldian.

Leintz Bailara hermandadean sartzea nahi zuten. 1495ean gutun bat idatzi zieten leintzarrei hermandadean sar zitezten.

Azkenean, orain dela 500 urte, abuztuaren 25ean, bailarako batzarra egin zen Aretxabaletako plazan. Batzarrean, bailarako prokuradore



puzken jarraitu nahi zutela.



nagusiak erregeen agintea eta hermandadearen arautegia betetzeko eskatu zien bertan bildutako 276 lagunei. Irailean, leintzarren gehiengoak

**Gaur egun
administratiboki
ez da Leintz
Bailara existitzen,
baina alderdi
geografikoak hor
dirau eta
leintzarrondako
lau herrik
osatzen dute
bailara.**



Leintz Bailarako armarrria.

zin egin zuen hermandadeko partaide izan nahi zuela. Hurrengo bi egunetan, hermandadearen komisarioek eta bailarako ordezkariak bailarako mugariak zehaztu zituzten.

Gipuzkoako hermandadea sortu eta 100 urtera, helburua beteta ikusi zuten leintzarrek, baina artean bazuten beste amets bat: Gebaratarrengandik aske geratzea. Amets hori 1556an gauzatu zen, diru asko kostatu zitzaizen epai luze baten ondoren.

XVII. mendean, berriaz, Felipe IV.ak bailara Aretxabaleta eta Eskoriatzaren artean banatu eta Leintz Bailarak botere administratiboa eta judiziala galdu zituen.

Gaur egun administratiboki ez da Leintz Bailara existitzen, baina alderdi geografikoak hor dirau eta leintzarrondako Arrasatek, Aretxabaletak, Eskoriatzak eta Leintz Gatzagak bailara bat osatzen dute: Leintz Bailara. ■


Maria Agirre

500. urteurrenari buruzko erakusketa eta liburua

Iñaki Urretaren ogibideak eta hobby-ak bat egiten dute. Zentzu bietan historialaria dugu. Aintzinako letra irakurtzeko gai dela eta, Iñakik urteak daramatza artxibo zaharretan arakatzan.


Azken bi urteotan ere buru-belarri aritu da Erdi Aroko dokumentuak irakurtzen. Bailara Gipuzkoan sartu zela 500 urte betetzen ditugula eta, efemeride horretako dokumentuei bete-betean heldu die. Iñakik aitortu duenez, bere lana osagarria da. Izan ere bailararen Erdi Aroko historia zehatz-mehatz jasotzen duen ikerketa liburu bat badago. Liburu hori oinarri hartuta, baina orain dela 500 urteko dokumentuak erabiliz, orain arte zekiguna gehitu du Iñakik. Egin duen ikerketarekin, bailararen pasarte horri buruzko bitxikeriak eta zenbait datu ezezagun jasotzen duen 15 orriko txostena idatzi du. Atxabaltarrak egindako lana eta 500. urteurrenaren inguruan Otaloran egin ziren ekintzak jasotzen dituen liburua egun gutxi barru argitaratuko da. Horretaz gain, duela 500 urteko ofizioei eta dokumentu zaharrei buruzko erakusketa berezi bat ere antolatu da. Une honetan, Eskoriatzan dago ikusgai eta abenduaren erdialdean Aretxabaletara eramango dute.

SASKIBALOIA Partidu erabakiorra




Arrasate saskibaloitaldeak derrigorrez irabazi behar du Larramendi taldearen kontra. Neurketa zapatuan, hilak 6, jokatuko da Iturripen, arratsaldeko 6etan. Saskibaloian hasi da bigarren buelta. Arrasatearrek lehenengoan bi neurketa baino ez zituzten irabazi: San Bernabe eta Estellaren kontra. Une honetan sailkapeneko azken aurreko tokian daude, 12 punturekin. Larramendik 13 puntu ditu eta azken hirugarrena da. Arrasatek zulotik irteteko puntuak behar ditu, eta sailkapenari begira zapatuko aurkaria horretarako aproposa izan daiteke. Azken ihardunaldian herriko taldeak hobekuntza nabarmena erakutsi zuen jokoan. Horregatik, itxaropentsu daude zapatuan gerta daitekeenarekin.

ESKUBALOIA Orain garaipena




Arrasate eskubaloitaldeak Donibane taldearen bisita izango du zapatuan, hilak 6, eguerdiko 12etan, Iturripen. Donibane bigarren sailkatua bada ere, beldur barik eta garaipena lortzeko ilusioaz egingo dio aurre Arrasatek. Herrero entrenatzaileak dioen bezala, euredako partidu guztiak dira zailak. Hala ere, argi dauka bere taldeak edonori irabaz diezaiokeela eta, era berean, edonoren kontra galdu. Arrasatearrek baja bakarria izango dute zapatuan: Aitor Oruek ezin du jokatu, zigortuta dagoelako. Gainontzekoek, beraz, erantzunkizuna hartu beharko dute, eta onena ematen saiatu beharko dute kantxan.

RUGBYA Herensugea Bordelera



Aste bukaera honetan Euskal Liga eta behe mailako taldeek atsedena izango dute. Herensugea beterrano taldeak, berriz, lagunarteko neurketa jokatuko du Bordeleko taldearen kontra. Zapatutik domekara arte egingo dira arrasatearrak Bodelen. Bi egun horietan partidua jokatu eta turismoa egiteko aukera izango dute. Bestalde, abenduaren 13an, infantil mailako rugby kontzentrazioa egingo da Garagartzako zelaian.

FUTBOLA 2. kadeteak Lezamara



Mondrako bigarren kadeteek NIKE torneoan hartuko dute parte zapatuan, hilak 6, Lezaman. Galizia, Asturias, Cantabria eta Euskadiko taldeak izango dira lehian. Arrasatearrek txapelketara joaten diren bigarren urtea da. Mondrako emakumezko taldeari dagokionez, berriro ere atsedena izango dute asteburu honetan. Mondrak ez du partidu ofizialik jokatuko. Juanina Garaik zuzentzen duen taldeari primeran etorri zaio atsedena, batez ere, lesionatuak sendatzeko. Lesionatuen artean, Susana aipatu behar. Susanak belaunean esginzea egin zuen, baina egun hauetan hobera egin du bere lesioak; beraz, laster jokatzeko moduan izango da.

Preferente mailako Mondrak, 14. ihardunaldian, Trintxerpe taldearen kontra neurketa jokatuko du indarrak. Norgehiagoka, zapatuan, goizeko 11.30etan jokatuko da.



Herriko Plazan hasi eta bukatuko da kuadrilen arteko krosa.

Kuadrila arteko Santamas krosa

Arrasate atletiko taldeak antolatuta, abenduaren 21ean kuadrilen arteko Santamas krosa korrituko da Arrasaten. Kros horretan Deba Garaiko 14 urtetik gorako edonork har dezake parte. Izen ematea doanekoa da eta kros egunean bertan egin behar da Herriko Plazan. Lasterketa eguerdiko 12etan hasiko denez, izena lehenago eman behar da. Bestalde, Arrasate kirolak taldeko atletek hiru proba izango dituzte asteburu honetan: Errenderiko eskola arteko krosa, Eibarko Arrate krosa eta partehartze libre-

ko probak Anoetan. Denean herriko ordezkariak izango dira.

Atletismoarekin jarraituz, Unai Sarabia eta Felix Sanchezen izenak aipatu behar. Unai Sarabiak Anoetan izandako probetan marka berria ezarri zuen: 60 metroan, 7 segundu eta 29 ehuneneko. Denbora horrek Euskadiko, Gipuzkoako eta Estatuko txapelketetara joateko aukera ematen dio. Felix Sanchez, berriz, Laudioko Nazioarteko Krosean 14. postuan sailkatu zen eta Euskadikoan 6.a izan zen.

Baque pilota txapelketa

Asteazkenean Baque txapelketako partiduak izan zituzten jubenil mailako pilotariek. Lazkanok Bergarako Redondori 18-12 irabazi eta gero, aurrera jarraitzen du. Belategik, berriz, galdu egin zuen Aretxabaletako Lasagabaste-

rren kontra: 16-18, eta kanpoan geratu da. Kadeteetan Dominguez eta Etxeandiak abenduaren 18an izango dituzte partiduak. Zapatuan, hilak 6, Santamas txapelketako partiduak jokatuko dira Iturripen, arratsaldeko 3.30etatik aurrera.

Herriko Athletic-zaleek Imanol Etxeberria peña eratu berri dute

Imanol Etxeberria Athletic-eko atezainak bere peña izango du herrian. Arrasateko zenbait athletic-zalek azken urteotan buruan zuten ideia errealitate bihurtu dute. Agustin Arregi Peñako lehendakariak esan digun bezala, Peña sortzeko ideia duela hiru bat urte bururatu zitzairen. "Une honetan Peña sortzeko bi arrazoi nagusi izan ditugu. Batetik, Bizkaiko taldeak 100 urte bete behar dituela, eta bestetik, Imanol Athleticen jokatzen duen lehen arrasatearra dela". Imanol Etxeberria peña ofiziala izango da, eta horretarako tramiteak egiten ari dira "Ibaiganen Athletic-eko peñakoekin egon gara. Orain, papaleoa falta da, eta bi hilabete barru peña ofiziala izango gara". Imanolek pozik hartu du bere aldeko Peña sortzeko ideia. Hala ere, Arrasatekoa ez da izango Athletic-eko atezainak duen peña bakarra; Zornotzan eta Durangon ere



Imanol Etxeberria peñako partaideak.



Imanol Etxeberria atezaina.

baditu.

Behin Peña ofizial eginda, inaugurazio ekitaldi bat egingo dute eta Imanolekin batera, Athletic-eko zenbait jokalarik Arrasatera etorri da.

Imanol Etxeberria peñak ez ditu Athletic-ek San Mamesen jokatzen dituen partidu guztietarako autobusa antolatuko. "Gure asmoa noizean behin San Mamesera edo kan-

pora joateko autobusa antolatzea da, baina ez beti".

Peñako bazkide izateko, 18 urtetik gorakoek urtean 5.000 pezeta ordaindu beharko dute eta gazteek 2.000 pezeta. Izena emateko 79 12 75 zenbakira deitu behar da. Peñako arduradunek 100 pertsonatik gora izatea espero dute. "Arrasaten Athletic-zale asko dago, bi edo hiru autobus betetzeko

adina. Horregatik, Peñako bazkide izateko jendea animatuko dela uste dugu".

Imanol Etxeberria Peñako lehendakaria Agustin Arregi da; lehendakari ordea, Antonio Murillo; idazkaria, Eloy Martiatxe; diruzaina, Juan Antonio Arregi; bokalak: Igor Altuna, Juan Jose Etxeberria, Eugenio Uribarren eta Karmelo Agiriano.



Erik Martin eta Garbine Tera lehen postuan

Joan zen astean Usurbilen izandako Gipuzkoako txapelketan, Arrasateko karatekek emaitza bikainak lortu zituzten. Jubeniletan Erik Martinek lehen postua eskuratu zuen eta Iker Zabartek bigarrena. Emakumeetan, Tamara Martinezek brontzezko domina lortu zuen. Kadeteetan Aitor Etxeberria bigarrena izan zen. Emakumeetan, bestalde, Garbine Tera lehen postuan sailkatu zen eta Alaitz Aranburuzabala hirugarrenean. Karateka hauek, abenduaren 14an, Arrasaten jokatuko den Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.



Zaldibarko jokalariek atsedean hartu eta indar berritzeko aukera izango dute aste bukaera honetan. 3 eguneko asteburua dela eta, Zaldibarren ez da baloia jokoan jarriko. 10. ihardunaldia ikusteko, abenduaren 13 eta 14ra arte itxoin behar!

Aste bukaera futbito barik

Laburrak

■ EPEH TALDEKOEK ZIRIA SARTU DIETELA USTE DUTE

Epeh taldekoak Zaldibarko antolatzaileekin izan ziren astelehenean. Jey Holigans taldearen kontrako partiduan izandako iskanbila baten ondoren, Epeh taldeak zigor gogorra jaso zuen. Taldekoek ziria

sartu dietela diote, eta zigorra gehiegizkoa iruditu zaie. Gainera, *makarra* fama hartu dutela uste dute. Epeh taldekoek zigorra murrizteko eskatu zuten bileran, baina antolatzaileek ezezkoa eman zieten, txapelketa uztea erabaki dute.

■ ARROGOI TABERNA KANPOAN

Arrogoi taberna Jey Holigansen kontra jokatzera aurkeztu ez zenez, Zaldibar txapelketa kanpo geratu da. Hemenetik aurrera, euren kontra jokatu behar zutenek atsedena izango dute.

■ GOL BAKARRA PENALTIZ

Futbitoan gol bakarra sartzea ez da ohikoa, eta hori penalti bati esker bada, are gutxiago. Totem eta Los Heredia taldeen arteko partidua 0-1 bukatu zen Los Herediaseko Jaimek 5. minutuan penaltiz lortu zuen gola.



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	9	9	0	0	62	18	18
AC Surcos	9	7	0	2	49	26	14
Nuevo Taberna	9	6	1	2	53	29	13
Branka Taberna	9	6	1	2	33	24	13
Sokoakoak	9	6	1	2	63	25	13
Pipwhis	9	6	0	3	40	30	12
Tamagotxi	9	6	0	3	31	26	12
KKJauri	9	5	1	3	29	22	11
Jotakabau	9	5	1	3	20	15	11
Ke Oxtias	9	3	3	3	35	25	9
Garaje Oscar	9	4	1	4	29	30	9
Leya	9	3	2	4	37	36	8
Cartonajes Igamo	9	2	2	5	17	32	6
Ganbelas	9	2	1	6	21	26	5
Potrosorri	9	1	2	6	21	40	4
Onaniereng	9	1	1	7	27	49	3
Babajana Sexy	9	1	1	7	20	47	3
Nacex.S	9	0	0	9	16	108	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	9	7	2	0	40	18	16
Fraguel Gol	9	6	2	1	39	24	14
Jako al rey	9	6	1	2	40	27	13
Irati STS	9	6	1	2	48	31	13
Betrayer	9	5	2	2	36	22	12
DA Iriztu	9	4	4	1	47	39	12
Zotz	9	5	1	3	30	20	11
Lautherbrunen	9	4	2	3	36	35	10
JEy Holigans	9	5	0	4	34	34	10
Pepelus	9	4	0	5	34	36	8
Rotor de Bolb.	9	3	1	5	34	21	7
DKB	9	3	0	6	32	40	6
Bukanak	9	2	2	5	36	50	6
Arrogoi taberna	9	3	0	6	32	48	6
Ainarexia	9	2	1	6	32	44	5
Sobred. de claro	9	2	1	6	26	47	5
Komando Alparg.	9	1	2	6	28	46	4
Epeh	9	2	0	7	23	35	4

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Koka Juniors	9	7	2	0	65	21	16
Naranja Mekanika	9	8	0	1	45	26	16
Estrella Taberna	9	7	0	2	39	27	14
Aurrera Bolie	9	6	1	2	46	30	13
AT Celaya	9	5	1	3	37	29	11
Totem	9	5	1	3	43	13	11
Aldibi	9	4	2	3	46	31	10
Lorategi	9	5	0	4	55	25	10
Los Heredia	9	4	2	3	28	23	10
Txeyenex	9	3	2	4	36	34	8
Borrock Roll	9	3	2	4	28	32	8
Aldapa Taberna	9	4	0	5	36	48	8
Insert Coin	9	3	1	5	28	41	7
Kamasutra	9	1	4	4	26	40	6
Etxe Mobil	9	2	1	6	20	52	5
Makai	9	2	0	7	23	61	4
Iluna Taberna	9	1	1	7	20	48	3
Elisabeth	9	1	0	8	19	59	2



ATEZAINAREN BAKARDADEA. Atea babesteko ardura daukate eta hori erantzunkizun handia da. Baina askotan gutxi baloratzen ditugu. Atezain bati golak sartzen badizkiote, txarto ibili dela edo txarra dela diogu. Jaurtiketak eta penaltiak gelditzen baditu, zortea izan duela.

Emaitzak

A taldea

Ke Oxtias 1 - KKJauri 3
 Jotakabau 1 - RRtamagotxi 0
 sokoakoak 5 - Potrosorri 6
 Babajana Sexy 2 - Nuevo tab. 9
 Onaniereng 16 - Nacex.S 0
 Argi Ibili 4 - Garaje oscar 2
 AC Surcos 4 - Branka Taberna 2
 Cartonajes igamo 3 - Ganbelas 2
 Pipwhis 4 - Leya 6

B taldea

Pepelus 3 - Zotz 1
 Jey Holigans 1 - Arrogoi taberna 0
 KomandoAlpargat 3 - DKB 10
 Irati STS 11 - Ainarexia 1
 Epeh 3 - Sobresosis de Claro 7
 Betrayer 3 - Bukanak 3
 Orlando Piratas 2 - DA Iriztu 2
 Lautherbrunen 1 - Rotor de B. 1
 Jako al rey 1 - Fraguel Gol 2

D taldea

Estrella Tab. 8 - Iluna Tab. 4
 Aurrera Bolie 8 - Aldibi 5
 Aldapa taberna 9 - AT Celaya 5
 Etxe Mobil 0 - Koka Juniors 12
 Borrock Roll 4 - Elisabeth 0
 Naranja Mek. 7 - Kamasutra 2
 Lorategi 8 - Insret Coin 2
 Txeyenex 8 - Makai 2
 Totem 0 - Los Heredia 1

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
 Tel.: 71 20 02

AMAIA ANTZOKIA BETEKO DUGU EPERRA IKASTOLAREN ALDE!

Datorren abenduaren 12an **“Abbadiaren Izarrak”**
 ikuskizun berritzaile paregabea **Amaia Antzokian**

Zuberoan adineko jendearen %52a elebiduna bada ere,
 haur eta gazteetan kopuru hori %9ra jeisten da.
ETORKIZUNA IKASTOLA DA!
 Ametsak eginez

Ordua: 22:30tan

Sarrerak: Aurrez 1.300 pta.

Bertan 1.500 pta.

Bazkideak 1.000 pta.

Sarrerak salgai: AEDn

Antolatzailea: Hegoaxe-AED.

Laguntzaileak: Kutxa, Eusko Jaurlaritza, Udala.

JOSE MARI ORMAETXEA (KOOPERATIBEN SORTZAILEEN TALDEKOA)

“Kooperatibismoaren auka”

Euskadiko Kutzak eta Saiolanek eskatuta idatzi du Jose Mari Ormaetxeak “Arrasateko kooperatibismoaren jatorria eta gakoak” izeneko liburu mardula. Egileak dioenez “ez da pertsonen historia-liburua, enpresen historia-liburua baizik”. Kooperatiben sorrera eta hazkuntzan lehen mailako protagonista historiko honek bi urte eman du liburua idazten. Eraitza, garai hartako Arrasate eta hamar enpresa esanguratsuenen ibilbidea ulertzeko gakoak.

- Zergatik eskaini diezu liburua Saiolanetik aterako diren enpresari berriei?

- Kooperatiben sorreran erabili genuen sustapen eredia belaunaldi berrientzat baliagarria izango delakoan idatzi dut liburua. Enpresari berriendako ideia berrien adibide izan daitezkeen esperientziak jaso ditut. Askok aldatu dira gauzak,

baina orduko eta egungo egoerek badute antzekotasunik: enpresak sortzeko ekimen beharra, zailtasunak, diru-iturriak... Garai haietako ekimen izpiritua transmititzea da liburuaren helburua.

- Arizmendiarrietaren mezuak irakurketa berria behar du?

- 42 urte pasa dira eta egoera erabat aldatu da, baina langileak enpresaren gidaritzan inplikatzeko dituen gizarte ereduak bizirik dirau kooperatibetan.

Eredu honek unean uneko adaptazioa behar du.

Gaur egun ekonomiaren globalizazioari eta konpetibitate izugarriari egokitu beharra dago, baina pertsonak ardatz

dituen gizartearen oinarriak zapuztu gabe. Horixe da kooperatibek gaur egun duten erronka.

- Zenbat denbora eutsi ahal izango zaio kooperatiben jatorriko ereduari?

- Pragmatismoak bultzatuta, nik ez dakit hamar urte berri kooperatiben hasierako zentzuari eutsi ahal izango zaion. Sistema kooperatibista eta ez kooperatibistaren arteko ezberdintasunak gero eta txikiagoak izango dira. Gaur

“Arizmendiarieta ez zen kooperatibak egitera etorri Arrasatera; gaur lehentasuna enplegua sortzea da, eta horretarako Elkarte Anonimoak antolatu behar badira berak ere ez luke dudarik izango”

era agortuta egon daiteke”

egun %60an eusten zaio hasierako kooperatibismo hari eta hamar urte barru %20a izan daiteke bakarrik.

- Kooperatibismoarenak egin du orduan?

- Giza antolamenduek, akats gabeak izanik ere, euren garaia daukate. Beharbada, 50 urte ostean kooperatibismoaren aukera agortuta egon daiteke eta hasierako oinarriak ordezkaturik. Sorreran diktadura eta sindikaturik gabe geunden eta kooperatibismoaren bitartez langileen ongizatearen alde egin genuen, baina gaur egun demokrazia eta sindikatuen bitartez lor daiteke ongizate hori. Kooperatibak ez ziren enplegua sortzeko jai, kalitatezko enplegua ziurtatzeko baizik; gaur egun beharbada hori ez da hain beharrezkoa.

Ez daukat batere erreparorik irauten dituen 50 urteetan kooperatibismoak bere egitekoa

agortu duela esateko, proiektu bakoitzak bere momentua dauka eta. Ez da porrot bat bezala interpretatu behar. Kooperatibismoaren ereduazko arrazionalizatu egingo da. Kontuan izan oraingo nahi eta beharrak beste batzuk direla. Hori jasotzen du liburuak: gu orduan horrela geunden eta horregatik egin genuen, baina akaso hamar urte barru batzuek ez dituzte orduko arazoak ulertuko.

- Batere kezkarik gabe diozu hori.

- Kezkatuta banago, baina konsekuentea izan behar dut.

Gaur egungo drama ez da langileak sofritzen duen bidegabekeria, lanik eza baizik; eta beharbada gaur hobe da 1.500 lanpostu gehiago izatea Arrasaten, nahiz eta kooperatibistak izan ez. Enpleguaren kalitate maila altua da gaur egun sindikatuen presioari esker eta benetan funtsezkoa enplegua sortzea da. Ez lidake batere amorrurik eragingo orain hamar enpresa berri etortzea Arrasatera eta denen artean langabetu guztiei lana ematea, nahiz eta kooperatibak ez izan. Alukeria izango litzateke kooperatibak izan beharra lanpostuen

gainetik jartzea.

- Momentu historikoa pasa dela bai, baina hortik kapitalismo hutsera...

- Hori ez da gertatuko. Hala ere, garai konpetitiboan momentuaren larritasuna nagusitzen da eta pentsakera aldatu beharra dago. Kapitalismo basatia desagertuz doa eta gaur egun kooperatiba baten eta Elkarte Anonimo baten arteko aldea, oinarrietan handia bada ere, eguneroko lanean ez da hainbeste igartzen. Horregatik nago lasai aldaketaren aurrean. Arizmendiari eta ez zen kooperatibak egitera etorri Arrasatera, herritarrendako bizitza bidezkoago eta hobea bilatzera baizik. 1955ean kooperatibak eginez lortu zen hori, baina gaur egun lehentasuna enplegua sortzea da, eta horretarako Elkarte Anonimoak antolatuta behar badira Arizmendiarietak berak ere ez luke dudarik izango. ■

Globalizazioari eta konpetibitate izugarriari egokitu beharra dago, baina pertsonak ardatz dituen gizartearen oinarriak zapuztu gabe. Horixe da kooperatiben erronka.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Buztanluzea

Sasai honetan, eguzkia laino artean gordetzen denean, hotza izaten da nagusi gure mendietan. Hai-zearen zurrumurrua, euriaren ttiki-ttaka, zuhaitz enborren zarata (ate zahar bat zabaltzean entzuten den berbera)... Natura lotan dagoela dirudi. Bata-batean eztaurritxo batetik sortutako doinua entzuten da: prrrrrrrrrrr..... prrrrrrrrrrr..... gero eta hurbilago.

Dagoen hotzarekin eta abesten... hori bai adorea txoritxo honek daukana!

Han dator, zuhaiska eta sastraka artean saltoka. Buztanluzea da. Gure aurretik konturatu gabe pasatu da, hain sartuta dago bere zereginetan! Hor dabil nekazekin, intsektu, armiarma eta horrelakoen bila. Ez da bakarrik etorri baina, kuadrila osoa du lagun. Aukera ederra izango dugu ba txori hauei patxaraz begiratzeko. Beltza daukate burua eta goialdean marra zuri bat. Aurpegia, bularraldea eta sabelaldea zuri-krema kolorekoak dituzte eta larrosa samarrak albo-



ak. Eta atzealdean, gorputza baino luzeagoa, izena ematen dien buztantzarra, beltza, bi marra zurirekin. Begiendako opari koloretsu, zein txori polit eta biziak! Erleen antzera dabilta sastraketan zurrumbiloka: prrrrrrrrrrr..... prrrrrrrrrrr..... eta politto-politto desagertuaz doaz, gero eta urrunago, basoaren sakontasunean.

Isiltasuna berriz ere. Orduan geure buruari gal-

detzen diogu: kuadrilan, zarata batean... ez lukete nonbait gordeta egon beharko, geldigeldi, hortik zehar ibili beharrean? Juergan ote dabilta? Gabonak ospatzen, ala?

Ba ez. Ez dabilta juergan. Hotzari aurre egiteko modu bat besterik ez da. Lo egiteko orduan, kuadrilako guztiak bata bestearen ondoren elkartzen dira, estu-estu, hegoak ondo gurutzatuta, elkarriz gorputzeko beroa ema-

teko. Azkenean luma-bola trinko bat besterik ez da ikusten. Sasoi honetan, gizakion antzera, txoritxo hauek sozialak dira oso.

Udan, ordea, bikoteak osatu eta txitak ekartzen dituzte. Eta kontu honetan ere orjinalak izan behar, zelan ez! Eurak baino askoz handiagoa den kabi erraldoia egiten dute, batek daki nondik ekarritako luma, goroldio eta likenez; eta jakina, hiru aste inguru ematen dute lan eta lan. Askotan, bikote gabe geratu diren txoriek edota kabia eta txitak hondatu zaizkienek lagundu egiten dute horrelako kabitzarren eraikuntzan. Bestela ez lukete inoiz amaituko!

Prozesionaria eragiten duten harrak-beldariletuak-ehundaka eta ehundaka jaten dituzte buztanluzeek; beraz, pinu-zaintzaile ditugu txori hauek, eta lana inori ezer kobratu barik egiten dute gainera. Eska diezaiokegu gehiago?

Zoritxarrez, intsektizidek min handia egin diote buztanluzeari, eta baita pinuek ere, antza denez. Udaltx inguruan pinuak sartu zituztenean, bizileku ugari galdu zuen buztanluzeak: arana, elorri zuria, basoko larrosa... Zuhaiska eta narra ez diren sastraka asko eta asko desagertu zen, txori honendako apropos-aproposak zirenak.

Hori dela eta, lehen orain baino askoz gehiago zeuden. Ia ba ez diren guztiz desagertzen! Ia ba buztanluze kopurua dagoenetan mantentzen den behintzat! Eta jarrai dezala abesten, Udaltxeko bazterrak nahastu eta alaitzen, hotzaren aurkako kemen sendo horrekin.

LAN ESKAINTZAK

Plaza hauek hornitzeko deialdi irekia:

ZERBITZUETAKO IKUSKATZAILEA

Baldintzak: 3. Hizkuntz Eskakizuna
L.H.II (Mekanika,
lorazaintza edo delineazioa)

2 ADMINISTRARI LAGUNTZAILE

(1 balio urrituentzako)
Baldintzak: 3. Hizkuntz Eskakizuna
O.H.O. edo baliokidea

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke

Izena emateko epea: B.O.E.n oinarriak argitaratzen direnetik 20 egun natural



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila

TXOTXONGILO EMANALDIA

PINOTXO 2000



Abenduak 13, zapatua

Arratsaldeko 17.00etan

Sarrera: 300 pta.



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

FAMILI ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTROA

97-98 IKASTAROAK • 2. Hiruhilabetea

Ordutegiak goizez, arratsaldez eta gauez.

OSASUN ALORRA

- Lasaikuntza-masaia

GARAPEN PERTSONALA

- Autoestima
- Emozioen autokontrola

LANBIDE HEZIKETA

- FP I osasun prestakuntza

TAILERRAK

- Bolilloak (goizez)
- Bainikak (goizez)
- Sukaldaritza eta gozogintza
- Enmarkazioa
- Gitarra
- Nekazal produktuen eraldaketa eta kontserbazioa betiko eran

ALOR SOZIO-KULTURALA

- Oinarrizko ingelesa
- Alfabetizazioa. Idatzi eta irakurtzeko ikastaroak
- B.E.Z (I.V.A) eta I.R.P.F. zergei buruzko azalpenak.

Kurtso hasiera
urtarrilaren 8an

Matrikulazio epea
abenduaren 9tik
18ra arte

kutxa fundazioa
fundación



famili eta gizarte-
hezkuntzarako zentruak
centros de formación
familiar y social

Santa Teresa, 12 • Tel.: 79 04 59 • ARRASATE

Ikastaro gazteak


Alboka ikastaroa

- Urtarrilaren 17tik San Juanak arte.
- Larunbat goizetan.
- Hiru txanda: 10-11, 11-12, 12-13.
- Arrasate Musikalen.
- Hastapen eta sakontze mailak.
- Matrikula: 3.000 pta.
- Ikasle eta langabetuek 1.500 pta.



Dantza karibearrak

- **Hastapen maila.**
- Urtarrilaren 19tik otsailaren 18ra.
- Astelehen eta asteazkenetan.
- 7.30etatik 9.30etara.
- Musakolako Saloian.
- Matrikula: 4.000 pta/ Ikasle eta langabetuek 2.500 pta.
- **Sakontze maila:** otsailaren 23tik martxoaren 25era.



Izen ematea: Gazte Bulegoan (77 00 65)

JON IRAZABAL, DURANGOKO AZOKAKO KOORDINATZAILEA

“Jendeak egunero kontsumitu beharko luke kultura”

Liburugintzan diharduten profesionalak Durangoko azokako nobedadeak ikusteko aukera izan zuten atzo. Gaur, berriz, denondako ireki dute eta abenduaren 8ra arte egongo da zabalik. **Ordutegia: goizeko 10:30tatik arratsaldeko 8etara. Lekua: Durangoko Landako.**

- Zer dakar aurtengo azokak?

- Makina bat gauza. Azoka toki berrian ipini dugu, iaz baino leku handiagoan. Diska eta liburuen erakustokiak 4.300 m² ditu; beraz, jendea lasai asko ibiliko da bertan.

- Nobedade asko?

- Urtero bezala, nobedade asko dugu. Gureta on da hori, azokari ospea ekartzen diolako, baina nobedade guztiak Durangorako uztea kezagarria ere bada. Idazle *izarrek* euren liburuak batera ateratzen dituzte eta idazle berrien lanak estali. Onena urtean zehar irtetea izango litzateke, baina, zer esanik ez, Durangoko azokarako nobedade guztiak eskura izatea ere ona da.

- Zeintzuk dira azokan arrakasta gehien duten produktuak?

- Haurrendako literatura ondo saltzen da. Ume batek gustoko liburu bat ikusiz gero, ez ditu gurasoak pakean utziko liburua erosi arte. Horretaz aparte, idazle edo musikari ezagunek kaleratutako nobedadeek ere arrakasta handia izaten dute.

- Zenbat diru fakturatzen da?

- Argitaletxeek 100 milioitik gora fakturatzen dute azokan. Gertatzen dena da azoka erakustokia ere badela eta jende askok gero erosten dituela liburuak dendetan. Hor auskalo zenbat



aterako duten argitaletxeek.

- Durangoko azokara jende asko joaten da, baina urte osoan zehar euskal kultura ahaztuta dagoela uste duzu?

- Jende asko kultur ekintza handietara joaten da baina ekintza txikietara ez. Jendeak egunkarietako kirol orrialdeak irakurtzen dituen bezala, kultura ere egunero kontsumitu beharko luke. Kontu horretan agintariak eta kultur taldeek lan handia dute.

- Euskara Elkarteek Durangoko azokan larregi ez erostea gomendatzen dute, hamabost egun garrenge herri bakoitzak bere azoka duelako...

- Durangoko azokan liburu bat erostea edo beste herrietako azoketan erostea gauza bera da. Azken finean, azokaren helburuak irakurzaletasuna piztea eta kultura zabaltzea dira; ikusleak ez du zertan ezer erosi behar. Azokak lau egun irauten du; urtea, berriz, askoz ere luzeagoa da.

“Argitaletxeek 100 milioitik gora fakturatzen dute Durangoko disko eta liburuen azokan”

aste gazte

■ BEKAK

• Nekazaritza eta Ingurugiro Sailaren eskutik, basogintzaren eta ehiza eta arrantzaren kudeaketari buruzko azterketak egiteko bi beka, mendietako goi mailako injineruei, injineru teknikoei eta biologoei zuzenduta. Epea: abenduak 10.

• Gasteizko Udaleko Ingurugiro Ikerketa Zentruak, ikerkuntzak burutzeko dirulaguntzak kaleratu ditu. Epea: abenduak 15.

■ LANA

• Bizkaiko Foru Aldundiak gizarte laguntzaile eta artxibo teknikarientzat lan poltsa osatzeko deialdia egin du. Epea: abenduak 10.

• Anoetako Udalak, gizarte kultur surpertzailerik bat behar du. Epea: abenduak 16.

• Huarteko Udalak, lorazaina behar du. Epea: abenduak 19.

• Antzuolako Udalak, idazkari kontuhartzaile lanpostua bete nahi du. Epea: abenduak 22.

■ IKASTARO GAZTEAK

• Alboka ikastaroa: urtarilaren 17tik San Juanak arte. Larunbat goizean Arrasate Musikalen. Hastapen eta sakontze maila. Matrikula: 3.000 pta. (1.500 pta. ikasle eta langabetuendako). Izen emateak: Gazte Bulegoan.

• Dantza karibearrak: hastapen maila, urtarilaren 19tik otsailaren 18ra. Astelehen eta asteazkenetan 7.30etatik 9.30etara Musakolako saloian. Matrikula: 4.000 pta. (2.500 pta. ikasle eta langabetuendako).

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Gesalibarren egoera onean dagoen baserria salgai. 3 solairu ditu, bakoitza 200 m²koa. Tel.: 79 97 35. 14.00etatik aurrera.

• Bergaran apartamentua salgai. 40 m². Sukaldea, komuna, egongela... 6.500.000 pta. Negoziagarria. Tel.: 76 05 88.

• Olanar kalean jantzitako pisua salgai. Tel.: 79 94 24. Gaueko 9etatik aurrera.

• Donostiako Amara auzoan pisua salgai. Eraikuntza berria, eguzki begian eta lasaia. 75 m². 19.000.000. pta. Tel.: 45 85 09. Goizean 9etatik 11etara eta Arratsaldean 19etatik 21era.

3. Errentan emateko

• Arrasaten pisua alokatzen da. Nahi izanez gero logelak ere alokatzen dira. Tel.: 76 21 70. Arratsaldeko 8etatik aurrera.

4. Errentan hartzeko

• Apartamentua edo pisu txikia behar dugu alokairuan. Tel.: 989 14 73 05. Mari Luz.

• Bikote gazte batek pisua behar du alokairuan. Tel.: 907 94 06 67.

5. Etxe konpartituak

• Arrasaten etxea alokatzeko edo konpartitzeko prest nago. Tel.: 71 42 86. Javier.

• Logela bat alokatzen da Arrasateko erdialdean. Tel.: 79 87 59. Tere.

• Donostian pisua osatzeko lagun bar behar dugu. Etxea erdi aldean dago. Tel.: 85 16 64.

GARAJEAK

7. Saldu

• Erguin kalean garaje itxia salgai. 22 m². Tel.: 79 18 70.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaienekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deltu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Antzuolan taberna traspasatu egiten da. Tel.: 76 01 95 eta 78 70 32.

15. Errentan hartzeko

• Arrasaten lokal komertziala edo industrialia hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.

• Gazte batzuk lokal baten bila dabilta. Tel.: 79 56 14. Igor.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska orduka lan egiteko gertu. Tel.: 79 77 91.

• Esperientziadun neska gertu umeak edo pertsona nagusiak eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 31 44.

Miriam, Gaeuz.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 51 29.

• Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Arratsaldez etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko emakumea gertu. Tel.: 79 45 16. Bego.

• Neska gertu kamarero lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 77 16 32.

• Titulodun neska gertu administratzaile lanetarako. Tel.: 907 94 06 67.

• Esperientziadun andra euskalduna etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 77 04 60. Margari.

• Geriatrian diplomadun mutil gaztea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 11 urteko esperientzia. Tel.: 79 61 05.

• 35 urteko emakumea gertu sukaldean laguntzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 05 53.

• Etxeetara arropak plantxatzera joateko gertu nago. Tel.: 79 05 53.

18. Eskaerak

• Sukaldari laguntzailea behar da. Tel.: 79 20 26.

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 09 03.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 77 04 70. Gaeuz deitu.

• Bi ume zaintzeko emakumea edo neska euskalduna behar da. Tel.: 79 11 24. Mila.

• Kamarero bat behar dugu. Tel.: 79 11 25.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. Tel.: 79 76 56.

• Pertsona euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 03 82.

19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Injinerutzako ikasle batek fisika eta matematika klase partikularrak emango lituzke. BUP eta UBI mailak. Tel.: 79 71 16. Goizez eta gaeuz.

• Alemanierako eta portugalerako klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko ordu 1etik aurrera.

• Titulodun neska batek DBHko 3. mailako klase partikularrak emango lituzke gaztekeraz. Tel.: 79 79 84. Arratsaldeko 3etatik aurrera.

• OHoko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 98 68.

• Esperientziadun neskek OHoko klase partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 25 09.

• Alemaniera ikasten hasi nahi baduzu, klase partikularrak emateko prest nago. Tel.: 79 82 42. Ainhitze.

21. Eskaerak

• LOGSEko 1. mailako ikasle batek matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 79 70 36 edo 79 12 91.

• Injinerutzako lehen mailako ikasleak marrazketako klase partikularak hartu nahi ditu arratsaldeko 7etatik aurrera. Tel.: 79 73 04.

MOTORRA

23. Saldu

• Renault 9 GTL SS-T autoa salgai. Prezio ona. Tel.: 77 00 78 edo 77 22 15. Edurne edo Iñaki.

• GAC Kanowey motorra salgai. Egoera onean. Tel.: 71 44 45. Gaueko 10etatik aurrera.

• Ford Fiesta Sport Mango 1.4, SS-AP autoa salgai. 36.000 km. Berri-berria. Tel.: 79 66 58. Gauez.

DENETARIK

26. Saldu

• Conserban Roller karabana salgai. 4-5 lagunendako. Oso egoera onean dago. Tel.: 79 59 71.

• Yorkshire arrazako txakur kumeak salgai. Tel.: 77 04 84. Gauez.

• Boxer txakur kumeak salgai. Tel.: 79 92 79. Arratsaldeko 8etatik aurrera.

• Oilagorretan trebea den setter baten txakur kumeak salgai. Tel.: 81 22 06.

• Egoera onean dagoen logela bat eta komuneko altzariak salgai. Tel.: 79 54 07.

• Lur enziklopedia salgai. 10 tomo. 30.000 pta. Tel.: (945) 24 70 31.

• Tosai markako kerosenozko bero-gailua salgai. Tel.: 79 82 36 7 79 78 65. Gauez.

• Ileapaindegirako tresneria salgai. 200.000 pta. Tel.: 79 67 12.

• Karabanendako neguko abantzea salgai. Inca Alpes 250 modelo. Bi urte ditu. Tel.: 79 66 09.

• Bigarren eskuko erremolkea salgai. Tel.: 79 86 75. Denda ordue-tan.

27. Erosi

• Lau pistadun grabagailua erosiko nuke. Tel.: 79 41 97. Koldo.

• Bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. Tel.: 939 65 34 85. Maribel.

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

30. Hartu

• Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko garajasotzen. Tel.: 79 65 31. Maite.

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat behar du. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Azaroaren 20an kiroleko erropaz beteriko ume motxila bat galdu zen Arimazuri plaza inguruan. Tel.: 79 78 97. Gaueko 8.30etatik aurrera.

• Papel garrantzitsu batzuk zituen karpeta beltz bat galdu nuen azaroaren 28an San Andres eta BM inguruan. Tel.: 970 41 74 08.

32. Aurkitu

• Peugeot auto bateko giltzak aurkitu nituen igandean Munarreko Nebraska tabernaren parean. Udaltzaingoa daude.

• Monterronen txandal fraka berri batzuk aurkitu nituen orain dela bi aste. Think Pink markakoak dira. Tel.: 79 40 15.

• Joan den igandean Leintz Gatzagako ferian emakumezkoendako antioju graduatu batzuk aurkitu nituen. Leintz Gatzagako Udalteixean daude.

• Lasagabaster jantxidendan beturrekoak eta giltzak utzi ditueana pasa dadila bertatik jasotzera.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Euskal heavy-rock talde bat osatzeko baxularia behar dugu. Tel.: (945) 13 67 03. Jokin.

• Arrasateko rock talde batek bateriojolea behar du. Punk/Oii! estiloa. Tel.: 79 79 35. Asier.

• 26 urteko mutil homosexuala naiz eta lagun taldea osatu nahiko nuke. Animatu eta Arrasateko 59 postakutxara idatzi.

36. Deialdiak

• Udalako Arteta baserrikoek kontu korrontea zabaldu dugu sutean ondutako baserria konpontzeko. Euskadiko Kutxa: 0010045181.



ARRASATEKO UDALA

Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailarekin Hitzartuta, Europako Gizarte Fondoaren Lankidetzarekin.

Lanerako prestakuntzako ikastaroa Merkatal Establezimenduko Pertsonala


Helburuak: Merkatal establezimenduko dependiente, erreposizio eta kajako lanpostutarako 15 langabeturi prestakuntza praktikoa ematea, laneratzeko aukerak hobetzeko helburuarekin.

Nori zuzenduta: Oinarrizko ikasketa maila daukaten langabetuak, merkatal arloan lana egiteko interesatuak.

:Ezaugarriak: 125 orduko ikastaro teoriko-praktiko bat merkataritza arloko adituek emanda, bi hilebeteko iraupenarekin, 1997ko abenduaren 29tik 1998ko martxoaren 4 arte. Honekin lotuta lan-praktikak egingo dira merkatal-enpresetan.

Izena emateko epea: 97/12/15

JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN
ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA



DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Europako Gizarte Fundoa



Fondo Social Europeo

Izenemateak eta informazio gehiago, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan,
79 09 00 telefonoan.

■ Horoskopoa

- **Aries** Errepublika bananero bateko diktadorea ematen duzu.
- **Taurus** Loretxo pare bat dirudite zure begiek.
- **Gemini** Galtzontziloak noizean behin aldatu egin behar dira...
- **Cancer** Idazmakina antzinako gauzen museoa utz dezakezu.
- **Leo** Muguruza anaien musikarekin burmuina kamustuko zaizu.
- **Virgo** Oinak zaindu. Ibiltzean ez duzu lurra ukitzen.
- **Libra** Abade frankista bat baino karkagoa zara.
- **Scorpio** Zer partidu jokatu behar duela Athleticeek UEFAn???
- **Sagittarius** Minigona horrekin den-denak maiteminduko dira zutaz.
- **Capricorn** Ez dut zure belarrien inguruko komentario gehiago egingo.
- **Aquarius** Izara artean goxo-goxo egongo zara zure lagun horrekin.
- **Piscis** Desastre hutsa zara. Ez duzu erremediorik.

■ Gurutzegrama


1	2		3	4	5	6	7
8			9				
10		11		12			
13			14		15		
16				17		18	
19					20		
21					22		

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Aker irendua. 8. Rutenioa. 9. Elizkizunak egiteko erabiltzen den edifizioa. 10. Ezberdintasun-konparaketak egiteko erabiltzen den hitza. 12. (Ald.) Ospe, entzute. 13. (Ald.) Aranondoaren fruitu jangarria. 15. Modu. 16. (Ald.) Oroitu aditzaren infinitiboa. 18. Iridioa. 19. Xortaz xorta. 21. Munduko kontinente handiena. 22. Alfabetoko hamalau garren letra-zen izena.

Bertikalak 1. Mendarozketa, Erguin Herrik Eskolako zuzendariaren izena. 2. Adoretu. 3. Infusio mota. 4. Nigeriako hiria. 5. (Ald.) Herri musulmanetan, aginte politikoa edo militarra duen buruzagia. 6. Ia konturatu gabe. 7. Nafarroari dagokiona. 11. Jausi. 14. Arreta, ardura. 17. Joan aditzaren erroa. 20. Zer bait erretzean sortzen da.

Horizontalak: 1. Aketiren. 8. Ru. 9. Eliza. 10. Are. 12. (Ald.) Fama. 13. (Ald.) Aran. 15. Era. 16. (Ald.) Oroitu. 18. Ir. 19. Xortaka. 21. Asia. 22. Ene.
Bertikalak: 1. Arantxa. 2. Kuraios. 3. Te. 4. Ila. 5. (Ald.) Emir. 6. Ezartan. 7. Nafar. 11. Erori. 14. Arta. 17. Oa. 20. Ke.



JOVI: Soluzio orijinalenak!

JOVI

PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna!

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan. Erretxina autonibelatzailea duten lurzorua.

Ferrerias, 35
 ARRASATE
 Tel.: 79 12 87

Kutrelax, Arrasate Irratiko irratsaio berria “Biniloa da programaren erregea”

Belen Carenas eta Kaitin Allende Arrasate Irratiko bi beterana dira. Barre apur bat eragin, musikaz gozatu eta batez ere desestresatzeko edabe magikoa makinatu dute: Kutrelax.

Bere garaian oso modan eta orain erabat baztertuta dauden diska zaharrak errekupe-ratu dituzte, hautsa kendu, eta ostegunero gaueko hamarretan doinu zaharrak gogorazten dizkigute dosi txikitin, FMko 107.7an.



Belen Carenas eta Kaitin Allende, Kutrelaxeko gidariak.

- Kutrea da Kutrelax?

- Hasierako programak benetan kutreak izango dira. Nostalgikoendako programa bat da, biniloa da gure programako erregea. Hezkuntza saioa ere bada, taldeen informazioa ematen dugu eta.

- Zer musika jarri duzue,

adibidez, azken programe-tan?

- *Los Mitos, FórmulaV, Heleno, Jeanette, Nino Bravo, Karina, Joan Baez, Grease, Saturday night fever...* Aurrerago monografikoak ere egingo ditugu.

- Nola daukazue antola-

tuta programa?

- Hiru zatitan. Musika zaharraz hasten gara, gero munduko musika edo musika etnikoaz osatutako *tartea* daukagu, eta azken zatian, musika lasaia, ohean sartu eta lo hartzeko. Horregatik da *Kutrelax*; hasieran kutre eta amaitzeko lax.

Iñaki Urdanpilleta, lotsa barik

Dudarik ez, Jaiak 97 azken hilabeteotako modako telebista saioa da. Argentinatik itzuli berri, Iñaki Urdanpilleta, saioaren lau aurkezleetako bat, Maier eta Suar-en gonbidatua izango da asteartean. Bere zaletasunak, Argentinako abentura, intimitateak eta beste kontu ugari, lotsa barik, jakina!



Iñaki Urdanpilleta.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 6	ASTELEHENA, 8	ASTEARTEA, 9	ASTEAZKENA, 10	OSTEGUNA, 11	OSTIRALA, 12
Asteazken zehar eskainitako programa interesgarrienen errepikapena	Ez dago programaziorik.	13:30 Mondrasport. (Errepik.)	13:30 Lotsa barik. (Errepik.)	13:30 Tertulixan. (Errepik.)	13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.)
13:30 Kukaratxa Motel		20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30 Berriak.	19:15 Kukaratxa Motel. <i>Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin.</i> Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
14:15 Astebete		21:30 Lotsa barik. Gonbidatua: Iñaki Urdanpilleta.	21:00 Tertulixan. Beñardo Kortabariak eta bere gonbidatuek azken egunetan notizia azpimarragarri izan diren gaiak komentatuko dituzte.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	21:30 Astebete. <i>Paxi Montero.</i> Asteazken zehar jasotako berrien laburpena eta gai interesgarrien sakontzea.
14:45 Munduari bueltaka. Fernando Letek Ipar Irlan-dara egindako bidaia kontatuko du.				21:30 Kukaratxa Motel.	



Aspaldi, Uribarriko baserriarrak Gasteizera joaten ziren "tratuen", hau da, baserriko produktuak saltzen. Maiatz inguruan, adibidez, mailukiak eramaten zituzten. Goizean goiz Arrasateko geltokian trena hartu eta

Gasteizera joaten zen zenbait baserritar. Gasteizera heldu baino lehenago portaloia egiten zuten. Saltzen joaten zirenez, hirian sartzean ordaindu egin behar zuten eta horri deitzen zitaion portaloia egitea. Udaberrian batez ere mailukiak eramaten bazituzten ere, Uribarriko azak ei ziren Gasteizen fama

handiena zutenak. Oso kalitate oneko azak eramaten zituzten Uribarrikoek, berehala egosten zirenak.

Argazia Gasteizetik bueltan herriko tren geltokian ateratakoa da, eta zein urtetan egin zen ziur ez badakigu ere, 40 bat urte izango ditu. Argazkian ageri direnak: Eugenio Elkoroba-

rrutia, Soledad Abarrategi, Kontxita Markaide, Juana Markaide, Maria Jose Abarrategi, Nieves Abarrategi, Felisa Muñoa, Isabel Iturbe eta Pilar Gallastegi. Behean: Julia Gallastegi eta Sabina Guridi.

Informazioa:
Jone Bergaretxe



Torreauzo, 9
Tel.: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI

Otxe Aundi
Hotela** Jatetxea

SANTA LUZIA
egunerako
menu berezia
orkesta eta guzti!

TXINPARTA taldearen dantzaldia!



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Erantzun zuzena

**Aurrezkiak
Epeka**



Aurrezkiaren Fruituak 97ko Udazken-Negua



Hormako erlojua egurrezko markoarekin.

175.000 pezeta 7 hilerako
275.000 pta. 4 hilerako



Edalontzidun (1,5 L) Solac irabiagailua.

175.000 pezeta 12 hilerako
275.000 pta. 7 hilerako



Fagor lapiko azkarra (6 litro) Gasa, Elektr., Vitro., Indukzioa.

275.000 pezeta 12 hilerako
450.000 pta. 7 hilerako



Eskaintza bateratua
525.000 pta. 12 hilerako

Zatuz Euskadiko Kutxara. Berehala jasoko duzu zure aurrezkiaren fruitua. Eta gogoan izan, eragiketa formalizatu eta gero, aukeratutako produktua gustatzen ez bazaizu, beste bat hartu edo eragiketa deusezteko aukera duzula.

Izakinak bukatu arteko eskaintza.

Informa zaituz Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan, goizez nahiz arratsaldean. Edo 901-333 444 telefono zenbakira deitu, gaueko 10ak arte.

sofa
leku

a, eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92